

BALIO PROPOSAMENA

ZE BEHAR EDO ARAZO KONPONTZEN DUZUE?

Gure enpresaren helburua hortz-kliniketan berrikuntzak eta hobekuntzak egitea izango da, klinikara doazen paziente zein klinikako jabe eta langileen baldintzak hobetzeko.

Horrela behar ezberdinei egokitzen ditugu klinikak: atentzio inklusiboa ematea, paziente gehiago lortzea, diseinu polita eta modernoagoa izatea, eguneroko langileen lana erraztea (teknologia berriak erabiliz) eta haien formakuntza aktiboa bermatzea, klinika jasangarritasuna izatea eta lan arriskua murriztea. Ekonomian igoera ondorioztatuz.

Beraz, arazo hauek konponduko ditugu: edozein pazientei arreta desegokia ematea (entzuteko desgaitasunak, ikusteko desgaitasunak, mugitzeko desgaitasunak, autismoa, obesitatea, tauret sindromea eta hitz egiteko desgaitasunak besteak beste), energiaren kontsumo desegokia edo ez aprobetxatua, istripuak eragin dezaketen objektu edo altzariak, ingurumen desegokia izatea (argiak, zarata, deserostasuna, entretenimendu ekintzak...), material eta instrumentu zahar eta manual erabiltzea, langilearen baldintzak eta eskubideak (baita haien formakuntza zaharkituta ere) eta ekonomia arazoak izatea.

ZER BEREIZTEN ZAITU ETA, BERAZ, ZERGAITIK EGONGO DA BEZEROA ZURI ORDAINTZEKO PREST?

- **Berritasuna** gure enpresaren ezaugarrietako bat izango da, beste kliniketan ez dauden zerbitzuak eskainiz. Ez da ohikoa kliniketan energia berriztagarriak erabiltzea eta gure intentzioa hauen sustapena ematea da. Hau gure planetarentzat lagungarria izango da eta gure iritziz energiaren etorkizuna da. Hau da, denborarekin gomendagarriena izango da zerbitzu hauek areagotzea, ekonomikoki dituen onuretz gain.

- **Publizitatea eta marketina** oso garrantzitsua dena hortz klinika batean paziente berriei ailegatu ahal izateko. Gure esperientzia eta gomendioen bitartez lagunduko diogu klinikari digitalizazio munduan sartzeko edo haien komunikazio kanalak zabaltzeko.

- **Pertsonalizazioa** ere bereizten digu enpresa bezala. Gure lana klinika bakoitzaren beharretan oinarritzen delako, bakoitzak behar dituen berrikuntzak eginez.

- **Lana errazten** saiatuko gara ere, zerbitzu ezberdinak eskainiz. Hau izango da gehienbat tresna berriak edo modernoagoak ezarriz tratamenduak errazteko, langileentzat zein pazienteentzat. Honi esker tratamenduak ez dira hain inbasiboak izango pazienteentzat eta langileen lana errazagoa eta azkarragoa izan daiteke.

- **Diseinua:** Klinika baten diseinuak eragina du pazienteen animoan, ingurune moderno, irisgarri eta atsegina sortzen baitu, konfiantza sortu eta antsietatea murrizten duena, bereziki dentistarekiko beldurra duten pertsonengan. Argiztapen epelak, kolore lasaigarriak, altzari erosoak eta mugikortasun murriztua edo desgaitasunak dituzten pertsonentzako erabilerraztasun egokiak esperientzia hobetzen dute, ahoaren zaintza motibatuz. Arrapalak, ate zabalak eta espazio egokituak inklusioa indartzen dute, paziente guztiak ongi etorriak sentitzen direla ziurtatuz. Gainera, diseinu funtzional batek mesede egiten dio lantaldeari, produktibitatea handituz eta tratu ona bultzatuz.

- **Prezioa** klinikaren arabera izango da. Klinikari beharrezkoak diren aldaketak edo berrezarkuntzak jabeak eskaintzen digun aurrekontuara egokituko ditugu. Kontuan izan behar dugu baliabide ezberdinak honetan eragiten duela. Izan daiteke hasiera batean prezioak altuak izatea, adibidez energia berriztagarria dela eta, baina hau etorkizunera begira onura ekonomikoak ekarriko ditu, energia berriztagarriei esker dirua aurrezten delako. Gainera subentzioa edo laguntzak eskaini ahal dira egoeraren arabera energia berriztagarria ezartzeko (aurrerago aipatuta).

- **Arriskuak murrizten** saiatuko gara klinikaren erditik egon daitezkeen objektu edo altzairuak baztertuz istripurik ez egoteko eta desgaitasunak dituzten pertsonentzat egokiagoa izateko. Eskailerak edo eskaloirik egonez gero, hauek kentzea gomendatuko dugu, ez delako bideragarria bereziki guztientzako eta ustekabe bat badago erortzeko arriskua dagoelako

- **Eskuragarritasuna** hortz klinika bat hobetzeko eta eguzki plakak erabiltzeko edo energia hornitzeko (suministros) ideiak hainbat eskuragarritasun maila izan daiteke, zenbait faktoreren arabera. Adibidez, eskuragarritasun ekonomiko edo teknikoak.

- **Erabilerraztasuna** emango dugu klinikako langileentzat ere, produktu modernoagoak sartuko ditugulako, langileen lana errazteko eta prozedurak ez izateko hain konplexuak. Baita ere haientzako formakuntzak emanez, horrela ideia eta iniziatiba berriak ezagutu ahalko dute.

- **Segurtasuna** beste ezaugarri bat izango da, langile zein pazienteen arriskuak kontuan izango ditugula ahalik eta arazo gutxien izateko.